

1. ARIKETA (5 PUNTU)

Ondorengo testuari buruz bost galdera dituzu eta galdera bakoitzean aukeratu erantzun egokiena. 0 galdera adibidea da.

ETB, IRUZKINAK ETA IKUSEZINAK**ETB**

Orain dela urte batzuk haxe gertatu zitzaidan. Telefono deia jaso nuen eta ETBrako lanean ari zen ekoiztetxe bateko kazetariak saio batean ea nire iritzia ematen agertzeko prest ote nengoan galdetu zidan. Saioak Iruñeko bizikleta-politikaren inguruan izan behar zuen. Baietz esan nion eta ETBrako zenez ea euskaraz egiten ahal nuen esan nion, gaztelaniaz zela saioa berak, ETB2rako. Ongi da, esan nion, bada nik euskaraz egingo dut eta azpitolatu dezatela gaztelaniaz. Ez zutela halakorik egiten esan zidan, bada egin dezatela behingoz esan nion nik. Momentu batean, zakarki, saioa ez zela euskararen inguruan baizik eta bizikletei buruz esan zidan. Hortxe amorratu nintzen ni bete-betean, eta eztabaida txiki baten ondotik nirekin jada ez zutela kontaktzen ondorioztatu nuen.

Egia esan tontoak gara, uste dugu ETB zer edo zer gurea dela, edo horrela sentitzen dugu, iruditzen zaigu gure iritzia eta gu garena azaltzeko tresna bat izan behar duela eta kazetarien lana hori modu egokian jasotzea dela eta abar eta abar. Baina tamalez hori ez da egia.

Kasu honetan, esate baterako, kazetari horri nire iritzia bost axola zitzaion. Benetan interesa izan balu nire iritzia jasotzeko benetako lana egingo zuen, itzultzaile bat aurkitu, azpitoluak jarri. Baina berak behar zuena minutu batzuk beteko zituzten eduki batzuk ziren, txorizoa betetzeko, lotu eta saltzeko.

Jendearen iritzia, jendea euskalduna den edo ez, horrek zer axola du! Gauza horiek bere lanean ez dira helburuak: arazoak dira.

Azpitoluak

Amaren etxean askotan ETB1eko berriak ikusi eta gero ETB2koak jartzen ditugu (ama ez da euskalduna). Aurreko informatiboan iritzia edo testigantza euskaraz eman duten euskaldunek orain gaztelaniaz eman behar dute. Politika antieuskalduna erabatekoa. Zer lortzen da horrela? Hasteko, euskaldunak ez diren kazetarien harrokeria sustatzea, gero, euskararik gabeko errealitatea eraikitzea. Zergatik behartu behar zaio euskaldunari gaztelaniaz edo frantsesez egitera? Zergatik ez dituzte azpitolatzen eta kitto? Nork egin behar du lan eta norentzat? Kazetari prestatu gabearentzat arazoa izan ez gaitezen eman dezagun gure testigantza euskaraz eta gero erdaraz, egin dezagun guk lan bikoitza zertarako eta ongi irudikatzeke euskaldunik gabeko errealitate bat. Bapo.

Aurkariak euskaldunok ikusezin nahi gaituzte eta gehienetan lagundu egiten ditugu geure burua ikusezin bilakatzen.

Albistegi horietan Kataluniako abertzaleen testigantzak jasotzen dituztenean gehienetan katalanez entzuten dira eta behean azpitoluak. Madrigo albistegietan mila bider entzun dut nik katalana azpitolatua. Euskara azpitolatua sekulan ez. Euskal Herriko abertzaleek, zintzo demonio, gaztelaniaz edo frantsesez egiten dituzte adierazpen garrantzitsu guztiak.

Interneteko iruzkinak

Batzuetan, Herrialde Katalanetako Interneteko prentsa irakurtzen dut eta konturatu naiz iruzkinetan irakurleek kataluniera erabiltzeko joera handia dutela, nahiz eta berria gaztelaniaz izan. Susmoa dut batzuetan aurreko iruzkinetako hizkuntzaren arabera gertatzen dela hau. Hau da, aurrekoak gaztelaniaz badira, gaztelaniaz erantzuten bestee, eta alderantziz. Gure artean euskarazko iruzkin gutxi idazten dira, webgune euskaldunetan salbu, noski. Baina, demagun, Patxi Lopezen blogean jendeak ia-ia %100 gaztelaniaz egiten du. Nik Diario de Navarrako webgunean iruzkin bat idatzi nuen euskaraz eta ez zuten argitaratu. Baina oraingo honetan ere susmoa daukat "vasco"-en webguneetan den-dena gaztelaniaz agertzen dela euskaldunok euskaraz idatzi beharrean gaztelaniaz idazten dugulako.

Nahiago dugu gure iritzi abertzalea eta euskaltzalea eman, euskaldun bezala agertu baino. Eta horrek ondorio argia du, horrekin batera ideia sakonak barreiatzen ari gara: 1. Ez gara existitzen. 2. Komunikazioa da garrantzitsuena eta horretarako espainola / frantsesa dugu. 3. Euskara gutxi batzuen arazo ulergaitz bat da.

Joxemiel Bidadorrek urteak eman zituen garai bateko euskaldun "desagertuen" bila. Euskaldun haiek ukatuak eta desagerraraziak izan ziren; gaur egun gure borondatez egiten dugu lan ziztrin hori. Bada garaia horretaz jabetu eta ildo aldatzeko.

Zaldi Eroa, Nabarra aldizkaria

Galderak

0.Behin, zertarako deitu zioten Zaldi Eroari ETBtik?

- Bertan lan egitea eskaintzeko.
- Gaztelaniazko azpтитuluak prestatzeko.
- Saio batean iritzia emateko.*

1.Zergatik haserretu zen Zaldi Eroa deitu zion kazetariarekin?

- ETB2ko kazetaria zelako, eta Zaldi Eroa ETB1en baizik ez zen agertzeko prest.
- Euskaraz eginez gero, kazetariak uste zuelako azpтитuluak jarri behar zirela nahitaez.
- Kazetariak ez zuelako onartu nahi Zaldi Eroak iritzia euskaraz eman zezan.

2.Zaldi Eroaren iritiz, zer nahi zuen deitu zion kazetariak?

- Haren iritzia ezagutu nahi zuen, baina ez zuen euskararen arazoa ulertzen.
- Lehenbailehen amaitu nahi zuen, hamaiketako hartzera joan ahal izateko.
- Saioa hala edo nola bukatu nahian zebilen, eta berdin zitzaion noren iritzia jaso.

3.ETBko saioetan, euskaldun batek euskaraz errandakoa berriro erdaraz errepikatzen duenean,

- egoki ari da, bestela jendeak traba gisa ikusiko bailuke euskara.
- horrekin euskara ez dela beharrezkoa erakustea bertzerik ez du lortzen.
- lan bikoitza eman dio kazetariari, honek bi elkarrizketa egin behar izan baititu.

4.Herrialde Katalanetako Interneteko webguneetan...

- barra-barra erabiltzen da katalana, Euskal Herrikoetan, ordea, arras gutxi erabiltzen da euskara, salbu webgunea bera euskaraz denean.
- iruzkinen kasik %100 katalanez dago idatzia, eta aurreko iruzkin bat gaztelaniaz agertzen bada, are gusturago erantzuten diote katalanez.
- joera handia dute katalanez idazteko, eta baten batek Patxi Lopezen blogean ere katalanez idatzi du bere iruzkina.

5.Zaldi Eroaren ustez,

- askotan, konturatu eta pentsatu gabe, guk geuk egiten dugu euskararen etsaien lana.
- Bidadorrek zioen bezala, gaur gu gara geure burua ezabatzen duguna bizitza publikotik.
- gaur egun, bertzeak bertze Bidadorren lanei esker, euskararen egoera guztiz aldatu da.

2. ARIKETA (5 PUNTU)

Hurrengo testuari buruz bost galdera dituzu eta erantzun zehatza idatzi behar duzu, 0 galdera adibidea da.

Zergatik hitz egiten diegu landareei?

Goenkaleko Maria Luisak landareei hitz egiteko ohitura zuen, baina ez da bakarra; jende askok du ohitura hori bera. Beste batzuek autoari hitz egiten diote, edo ordenagailuari, eta bada GPSarekin eztabaidatzen duenik ere. Ez dira portaera arraroak; alderantziz, kultura guztietan ikusten da halakoak egiteko joera. Orain, horren muinean zer dagoen azaltzen duen artikulua bat argitaratu dute Harvard Unibertsitateko eta Chicagoko Unibertsitateko bi psikologok, «Current Directions in Psychological Science» zientzia-aldizkarian.

Gauzei giza ezaugarriak egozte antropomorfizazioa edo gizatiartzea deitzen zaio; «Antropomorfizazioa» hitza Xenofanes filosofo greziarrak asmatu zuen, jainkoek sinestunekin zuten antza agerian jartzean: jainko greziarrek larruazal zuria eta begi argiak zituzten, eta Afrikakoek, berriz, larruazal eta begi ilunak. Artikuluaren egileen ustez, gizatiartzeak ondorio garrantzitsuak ditu. Besteak beste, giza ezaugarriak eman zaizkion izakiari (biziduna izan edo ez) arreta morala zor zaio, eta zaindu egiten da. Horrez gain, gizatiartutako hori bere jokabidearen erantzule bihurtzen da, eta, beraz, saria edo zigorra merezi du, egiten duenaren arabera.

Bestalde, zer gizatiartzen dugun ikertu dute psikologoek, ez baititugu izaki guztiak berdintzen. Hala, horretan eragiten duen faktoreetako bat antzekotasuna dela antzeman dute psikologoek; hau da, delako izaki horrek portaeran edo itxura fisikoan pertsonen antza badu, aukera handiagoa du gizatiartua izateko beste izaki batek baino. Esate baterako, errazago gizatiartzen dugu landare bat (jaino, hazi eta hil egiten da), auto bat (mugitu egiten da) edo maniki bat (antzeko itxura du), hozkailu bat edo armairu bat baino. Beste faktore bat bakardadea da: gizarte-harreman eskasak dituzten pertsonak besteak baino joera handiagoa dute gauzak edo animaliak pertsonatzat hartzeko.

Alderdi praktiko bat ere badu. Hain zuzen, Munduko Meteorologia Erakundeak pertsona-izenak ematen dizkiete urakanei eta ekaitzei. Hasieran, santuen, arrantzaleen andregaien eta gustuko ez zituzten politikarien izenak jartzen zizkieten, eta oraindik ere jarraitzen dute ohitura horrekin. Bada, psikologoek esanean, horrek erraztu egiten du komunikazioa, eta neurri eraginkorrak hartzen eta informazioa hedatzen laguntzen du.

Kontrako joera ere -hau da, gizatasuna kentzea, pertsonak gauzatat edo animaliatzat jotzea- aztertu dute psikologoek. Hainbat adibide nabarmen aipatzen dituzte, hala nola naziek juduekin egindakoa, eta soldadu estatubatuarrek preso irakiarrekin Abu-Ghraiben egindakoa. Haien ustez, adibide horiek iradokitzen dute halakoetan parte hartzen dutenek talde bateko partaide sentitzen direla, eta arrotzari aurre egiteko elkartzen direla. Halakoetan, gizatasuna kentzeko joerak taldea sendotzen lagunduko luke.

Horrenbestez, artikuluaren egileek uste dute gizarte-lotura estuak izatea ona dela banakoarentzat, baina gizatasuna kentzeko joera ekar dezakeela, eta, beraz, ondorio txarrak izan ditzakeela taldetik kanpo daudenentzat.

Psikologoek iritziz, pertsonon jokabideak ulertzeko, garrantzitsua da gizatiartzea eta gizatasuna kentzea, biak, ikertzen jarraitzea, eta adibide argigarri batekin bukatzen dute artikulua. 2008an, Kalifornian bi lege-proposamen onartu zituzten. Bigarren lege-proposamenari esker, haztegi-tako abereek ordura arte baino leku handiagoa dute; zortzigarrenaren arabera, berriz, bikote homosexuali ezkonduekin parekatzen zituzten eskubide batzuk kendu zizkieten. Giza jokabidearen aurkia eta ifrentzua.

Ana Galarraga
2010eko Martxoaren 5a

Galderak

0. Arraroa al da kultura batzuetan autoari, landareei edo GPSari hitz egitea?

- *Ez, kultura guztietan gertatzen da.*

6. Xenofanesek, jainkoek noren antza izaten zutela zioen?

-

7. Zein dira gizatiartzea eragiten duten faktoreak?

-

8. Zer ohitura da komunikazioa errazten eta informazioa hedatzen laguntzen duena?

-

9. Psikologoek, besteak beste naziek juduekin eta Ameriketako Estatu Batuetako soldaduek preso irakiarrekin nola jokatu zutela diote?

-

10. Giza jokabidearen inguruan, zer adibide atzerakoi ematen dute Kalifornian onartu zituzten lege-proposamenena?

-

3. ARIKETA (5 PUNTU)

Hurrengo testua narrazioa da eta dauden bost hutsuneak betetzeko zazpi aukera dituzu, beraz, bi testu zati sobera daude. 0 galdera adibidea da.

ELTXOA

Gaua zen eltxo baten hegal-hots gogaikarriak nire logelako bake-giroa zapuztu zuenean. Di-da altxatu, argia piztu eta galtzerdi zahar batekin "gautxori" madarikatu hura akabatzen saiatu nintzen. _____ **(0)** _____. Ehiza ero haren ondorioz, gorputz-adarrak gero eta nekatuago nituen; betazalak, halako batean, ixten hasi zitzaizkidan, begiak guztiz estali arte.

Bat-batean ezinegon lazgarri batek harrapatu ninduen. Ez nuen, hala ere, zirkinik egin. Ohean jarraitu nuen, nire logelan, ezeri aurre egiteko kemenik ez nuela. _____ **(11)** _____. Bat-batean nire sorgortasuna desagertu eta hanka-besoak plastikozkoak banitu bezala hasi zitzaizkidan mugitzen. Halako batean, sabaia gainera erori behar zitzaidala pentsatu nuen.

Garrasika hasi nintzen. Nire oihuak kalearen txokorik urrunenetik ere adituko ziren. Handik askatzeko hamaika bider eskatu nuen, baina han inork ez zidan entzuten, edo beharbada entzunda ere, ez zidaten lagundu nahi. _____ **(12)** _____. Jendeak ez gaitu oso maite diru-kontuak gobernatzen ditugunok; soldataren barruan dagoen zerbait da. Ardura handiko lanpostu batean jardun arren, une hartan ni neure logelan gatibu nengoen eta ez nuen ihesbiderik. Ezin nuen gehiago jasan lau horma haien artean luzaroago egon beharrak eragiten zidan estura. Ohartu nintzen apurka-apurka hiltzen ari nintzela, itotzen, erotzen...

Bat-batean, lehengo eltxo hura, nire eraso guztietatik salbu atera zena, berriro ikusi nuen, baina hasieran ez nion antzik eman, animaliaiko neurriak hartuta zeuzkanez gero. Odol guztia xurgatu nahi zidan kabroiak! Guztiz ikaratuta nengoen. Laguntza behar-beharrezkoa nuen. Infernu hartatik alde egin beharra neukan! Beste bat baino ez nuen behar! Beste dosi bat bakarrik! Bat!

Ordu (edo egun?) batzuk geroago, sendagaien usain sarkorrak esnarazi ninduen. Ez nengoen nire logelan, beste nonbait baizik: ospitalean seguru asko, ospitale bateko gela hits horietako batean, ohean etzanda, besteren menpe. Baina inor ez nuen inguruan galdetzeko. _____ **(13)** _____. Halako batean, argi moduko bat piztu zen nire barnean, eta puzzlearen zati guztiak ondo egokitzen hasi ziren: nire logela, eltxo erraldoiaren eraso, eutsi ezinezko izu-ikara, dosia... Nire garrasiekin larrituta, seguru asko auzokideek Poliziari deituko zioten, eta Poliziak anbulantziari. Zorionez, konortea galdu nuen, eta ezin izan nuen «ikuskitunaz» gozatu. Nire logelan baino gozoago egon arren, maindire eta horma haien zurtasun orbangabeak gehiago artetatzen ninduen lasaitu baino. Nire gainean gurutze bat zegoen, ospitaleko gela gehienetan bezala. Gurutzeko hari gustura galdetuko nion zer egin behar nuen amaraun hartatik ihes egiteko, baina bera ez zegoen entzuteko, eta ni ere ez, hitz egiteko.

Halako batean, bata zuriko gizon batek maindirearekin burua estali zidan. Ez nekien zer ari zen gertatzen han. _____ **(14)** _____. Hanka bat altxatzen saiatu nintzen, ingurukoei bizirik nengoela ohartarazteko eta, zorte pixka batez, sasi-sendagile hari ipurdian ostiko bat emateko, maindireekin jolasean ibiltzeagatik. Baina ezin. Hanka milimetro bat ere ez nuen mugitu. Ez nuen horretarako indarrik. Gero, ahaleginak egin nituen garrasi egiteko. Hauspoa bete, eta puffff; ezeeeeer

ez. Guztiz etsita nengoen. Bat-batean bururatu zitzaidan hura guztia amesgaizto bat besterik ez zela izango. Nahi bai. Halako batean, zerbaiten zipriztinak nabaritzen hasi nintzen maindireen azpitik. «Ospitale puta honetan itoginak ere baditiztek», pentsatu nuen nire artean. Ez ba: ospitaleko apaiza zen, eta ur bedeinkatua botatzen ari zitzaidan, Jainkoarekin bakeak eginda joan nendin. Bai, hilda nengoen!!! (15) . Odol guztia xurgatu zidan eltxo madarikatuak ez zuen beste inor ziztatuko. Eskuan indar guztiz atxikita neukan bere eztena, nire etxeko logelan izandako borrokan gupidarik gabe erauzi bainion. Ezten hura izango nuen bidaide, burua nik baino nahasiago zuen batek xiringa baten orratzaren itxura lañoa har baziezaiokeen ere.

Inaxio Lopez de Arana

TESTU ZATIAK

A.ALDE EGIN BEHARRA NEUKAN HANDIK, BIZIDUNEN MUNDUTIK ALEGIA. BAINA EZ NINTZEN BAKARRIK JOANGO

B.BAINA ALFERRIK, BEHIN ETA BERRIRO SAIATUAGATIK, BETI IHES EGITEN BAITZUEN ELTXOAK, NI BAINO AZKARRAGOA IZANIK

C.BERAZ, MEDIKUAK ZIOENEZ BANINDOAN BESTE MUNDURA BAINA ORAINDIK KOMUNIKATZEKO GAUZA NINTZEN ETA BIZIRIK NENGOEN!!!

D.GAINERA, ARTABURU HARI ESKER EZIN NUEN EZERTXO ERE IKUSI. ETA ENTZUN ERE EZ!!! BAINA BIZIRIK NENGOEN!!! ORAINDIK PENTSATZEKO AHALMENA NEUKAN, BESTEREKIKO KOMUNIKAZIOAN HUTS EGIN ARREN

E.GORPUTZA ODOLETAN IKUSTEN NUEN ETA ODOL JARIO HURA GELDITZEN EZ ZELA IKUSITA LAGUNTZA ESKATU NUEN OSPITALEAN; BAINA BERTAKO LANGILEEN ARDURAGABEKERIAK BIZIKI HASERRETU NINDUEN

F.GORPUTZA SORGOR NUEN, BAINA ZERBAIT ZEBILKIDAN BARRUTIK, ZIZTU BIZIAN; ODOLA BOR-BOR ARI ZITZAIDAN GORPUTZ OSOAN ZEHAR, ZAINETATIK IHES EGIN NAHI IZANGO BALIT BEZALA

G.NI OGASUNEKO IKUSKATZAILEA NAIZ LANBIDEZ, ETA EZ NINTZATEKE HARRITUKO JENDEAK ENTZUNGORRARENA EGIN IZAN BALIT, OIHUKA EROEN PARE ARI NINTZENEAN; BAINA ZER EGINGO DIOGU?

H.ZIURGABETASUN HARK GERO ETA GEHIAGO ASALDATZEN NINDUEN. BESO BAT ZEHARO UBELDUTA ETA ZULATUTA NEUKAN. HARRITZEKO: ODOL-TANTA BAKAR BAT ERE EZ, MAINDIRE-BURUSIETAN

Hutsunea	0	11	12	13	14	15
Testu zatia	B					